

Parte hartu eta erabaki!

OOG-RAKO HAUTESKUNDEAK
2024



ZER DA OOG-A?

• Zer da eskola-kontseilua?

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektoreen Ordezkaritza eta Parte-hartze Organo Gorena da. Ikastetxeko bizitzan eragina duten erabakiak hartzen dituzte bertan familiek, irakasleek eta ikasleek.

Eskola-kontseilua eratzea nahitaezkoa da ikastetxe publiko guztietan.

• Nortzuk parte hartzen dute?

-Zuzendaritza-taldea: zuzendaria, ikasketa-burua, idazkaria (hitzarekin, baina botorik gabe)

- Klaustroak aukeratutako irakasleen kopuru jakin bat (kide guztien herena gutxienez)

- Hezkuntza-arreta osagarritzako langile bat (gela egonkorra badago).

- Guraso kopuru jakin bat, familiek aukeratuta. IGEak zuzenean eta hauteskunde-prozesuan parte hartu gabe izendatu ahal izango du ordezkarri bat eskola-kontseiluko kide gisa.

- Ikasleek aukeratutako ikasle-kopuru jakin bat (bigarren

hezkuntza).

- Udalaren ordezkarri bat.

- Irakasle ez diren langileak (AZL) ordezkatuko dituen pertsona bat.

• Noiz aukeratzen da eskola-kontseilua?

Ikasturte hasieran, bi urtean behin.

• Zeintzuk dira bere funtzioak?

a) Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua onartzea.

b) Ikastetxearen urteko plana eta memoria onartzea, eta haren garapena eta emaitzak ebaluatzea.

c) Programa-kontratuen, hitzarmenen eta bestelako akordioen proposamenak onartzea, ikastetxea erakunde edo instituzioekin lankidetzan aritzeko.

d) Hezkuntza-komunitateak parte hartzeko arauak eta horien aldaketak ezartzen dituen antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzea, zuzendaritzaren proposamenez eta ekimenez.

e) Ikastetxearen aurrekontua onartzea eta aurrekontua gauzatzeagatik kontuak ematea.

f) Gatazken ebazpenean esku hartzea, eta, hartutako hezkuntza-, bitartekaritza- eta zuzenketak neurriak berrikustea.

g) Eskola-jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak programatzeko jarraibideak onartzea, eta horien garapena ebaluatzea.

h) Ikastetxearen funtzionamendu orokorraren azterketetan eta ebaluazioetan parte hartzea, eta eskola-errendimenduari bilakaera ezagutzea.

i) Beste ikastetxe batzuekin eta erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan aritzeko irizpideak onartzea.

• Nola aurkez naiteke?

Bi modutan egin dezakezu:

> IGEarekin batera.

> Banaka.

Jo zure ikastetxeko zuzendaritzara eta jakinarazi hautagai gisa aurkeztu nahi duzula.

Epea: URRIAREN 21ETIK AZAROAREN 4RA.

info+ ehige.eus

BIGE: 94 416 93 60
bige@bige.eus

BAIKARA: 943 32 72 08
baikara@baikara.eus

DENON ESKOLA: 945 25 61 62
info@denoneskola.eus

ehige 

Euskal Herriko Ikasleen
Gurasoen Konfederazioa